

# Xuxen programa bigarren bertsiora heldu da

Lehenengoa baino hobea da eta Interneten dohainik eskura daiteke

Xuxen euskara zuzentzaile informatikoaren bigarren bertsioa dagoeneko eskuragarria da Interneten. Lehenengoa ez bezala, bertsio honek hitz eratorri eta elkartuak hartzen ditu kontuan, oinarriko 73.000 hitzetatik milioika konbinazio sortuz. PC sistema erabiltzen duten ordenadoreek bakarrik erabili ahal izango dute.

Martxelo DIAZ | DONOSTIA

Xuxen II euskara zuzentzailearen bertsio berria aurkeztu zen atzo EHUn Gipuzkoako Errektoreordetzan. 1994an sortu zuen programa honen lehen bertsioa IXA ikertaldeak, eta orduetik hona somatu ziren akatsak konpontzen aritu dira.

Euskaltzaindiaren azken arauak (maiatza arte kaleraturikoak) kontuan hartzen ditu Xuxen IIk, Lakuako Gobernuko Hizkuntz Politikarako sailburordeak azpimarratu zuenez, ekimen honen helburuetako bat euskararen normalizazio bidean beste urrats bat ematea baita.

Honez gain, bigarren bertsio hau 73.000 hitz ezagutzeko gai da. Ingeleseko eta gaztelarazko zuzentzaileak ez bezala, deklinabidea ere kontuan hartzen du. Lehen bertsioan Xuxen deklinabidea ezagutzeko gai zen; bigarren honetan aldiz, eratorpenarekin eta hitz elkarketarekin lan egin dezake. «Modu honetan, oinarriko 73.000 hitz horiek kontuan hartuta, milioika konbinazio ezagutzeko gai da Xuxen II», azaldu zuen zuzentzailearen alderdi linguistikoak landu dituen Miriam Urkia UZEIko kideak.

Honekin batera, euskara zuzentzailearen bigarren bertsioak badu beste berrikuntza bat: norberak hiztegi pertsonala sortzea. «Horrela, adibidez, profesionalak maiz erabiltzen dituzten hitzak sistema honetan sar ditzakete. Ezinezkoa izango litzateke profesionalak behar dituzten hitz

guztiak hiztegi batean sartzea, gehiegi izango litzatekeelako. Horregatik prestatu dugu norberaren hiztegia sortzeko aukera», azaldu zuen Urkiak.

Euskara batua normalizatu nahi duenez, Xuxen IIk ez ditu euskalkietako formak ontzat ematen, nahiz eta ezagutzen dituen. Beti ere, Euskaltzaindiaren arauetan oinarritzen da. «Dena den, norbaitek euskalkietako forma hauek erabiltzen jarraitu nahi badu, hiztegi pertsonalean sartzeko aukera dauka», esan zuen Urkiak.


Orain arte, Xuxen II programa PC sistema erabiltzen duten ordenadoreetan erabiltzeko prestatu da soilik. Dena den, IXA ikertaldeko Iñaki Alegriak adierazi zuenez, Mac eta QuarkXPress sistemetan erabiltzeko gai izanen diren bertsioak prestatzen ere ari dira.

## Interneten eskuragarri

PC sistema duenak Internetetik Xuxen II programa bere ordenadorean jaisteko aukera dauka, doan gainera. Horretarako helbide honetara jo behar da: [www.euskadi.net/euskara\\_hizt/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm).

EHUko irakasleek osatu duten bertsio berri hau Microsoft etxearen Office 97 paketearen sartzen da, eta ez da inolako arazorik izango Word, Power Point eta Excel programetan erabiltzeko.

Bertsio berriaren tratamendua nahiko konplexua da eta, ondorioz, kalkulu eta memoria dezentre erabiltzen du. Ondo funtzio-



Xuxen II programa Internetetik jaitsi daiteke PCra.

Juan Carlos RUIZ

natzeko Pentium prozesadorea eta 32 MBko memoria behar dira gutxienez.

Lakuako Gobernuko Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariak, Agustin Elizegik, emandako datuen arabera, dagoeneko ia 3.200 erabiltzailek jaitsi dute Xuxen II programa beren ordenadoreetara.

Hauetatik, %39 gipuzkoarrak dira, %31 bizkaitarrak, %14 arabarrak, %6 nafarrak eta %0,9 Ipar Euskal Herrikoak. Honez gain, %4,9 Estatu espainiarreko erabiltzaileek jaitsi dute eta %2,6 beste herri batzuetakoek.

EHUko langileak (549) eta Lakuako Gobernuokoak (170) izan dira Xuxen II gehien jaitsi dutenak. Hauekin batera, ikastetxe ezberdinetako berrehun bat langile ere agertzen dira, eta baita hainbat udaletako beste ehunen bat langile ere. Guztiak jaitsi dute beren ordenadoreetara euskara zuzentzaile informatikoaren bigarren bertsio berri hau.

# Los niños que aprenden dos lenguas son capaces de distinguirlas desde pequeños

GARA | DONOSTIA

El profesor de la Universidad de Hamburgo Jürgen M. Meisel destacó en los cursos de verano de la UPV que los niños bilingües son capaces de distinguir perfectamente los dos idiomas que hablan desde una edad muy temprana.

Hasta hace unos diez años entre los lingüistas se admitía la llamada hipótesis de la fusión, que consideraba que el niño debía pasar una fase en la que existía un único sistema lingüístico para llegar a una segunda en la que los dos léxicos tienen las mismas reglas sintácticas, que se diferencian posteriormente.

«Hoy en día, en cambio, se pone en duda el hecho de que el

niño deba pasar una fase para llegar a distinguir las lenguas. Existe un amplio consenso a la hora de afirmar que un niño de dos años no tiene ningún problema para diferenciar tempranamente las lenguas», destacó Meisel.

En opinión de Meisel, el grado de conocimiento lingüístico que está en juego es escaso. «He realizado estudios de comparación entre la lengua francesa y la alemana y he llegado a la conclusión de que, entre otras cosas, el orden de las palabras entre estas dos lenguas es muy parecido. Son pocos los ejemplos existentes para decir que se diferencian. Por ello, comenzamos a contrastar el castellano y el euskara. Es mucho más interesante».

Algunos lingüistas que han estudiado el tema, opinan que los bilingües adquieren algunas nociones gramaticales antes que los monolingües, mientras otros centran sus investigaciones en la confusión de frases.


«Yo, en cambio, prefiero centrar mi trabajo en la gramática a nivel general», destaca Meisel, que demandó más investigaciones que tengan como objetivo especificar cuáles son las lenguas dominantes y cuáles las dominadas, así como su influencia en la adquisición de la lengua.

«Es importante analizar el bilingüismo temprano pero también las teorías en torno al monolingüismo», subrayó el profesor de la Universidad de Hamburgo.

**MAHAI NAZIONALA**  
**askatu**  
**DEMOKRAZIA**  
**Euskal Herriarentzat**

**BIHAR**  
**KONTZENTRAZIOAK**  
**BILBO** Moyua plazan 12etan  
**DONOSTIA** Prim kalean 12etan

**MANIFESTALDIK**  
**GASTEIZ** Andra Mari Zuriaren plazan 20:30etan  
**IRUNEA** Autobus geltokian 19etan



\* HERRI BATASUNA